

AUTOEBALUAZIOA

I.go MODULUA: FARMAKOEN BIOERALDAKETA

1. Farmako bat gibelean metabolizatzen denean:
 - a) II. faseko erreakzioa bat jasateko, aldez aurretik I.go faseko erreakzioa jasan behar du
 - b) Oxidazio mikrosomiala kualitatiboki eta kuantitatiboki bioeraldaketa erreakzio nagusia da**
 - c) Oxidazio mikrosomiala kuantitatiboki bioeraldaketa erreakzio nagusia da, konjugazioa kualitatiboki aniztasun handiena daukana den bitartean
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira

2. Polimorfismo genetikoak:
 - a) Soilik azetil transferasa entziman ikusi da
 - b) Azetil transferasa entziman ematen da, baina zitokromoko P450 entzimetan ere deskribatu da, azken hauetan garrantzia klinikorik ez duen arren
 - c) Zergati nagusia, parte hartzen duten entzimen kantitatean edo aktibitatean ematen diren aldaketak dira**
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira

3. Metabolismoa haurretan:
 - a) Glukuronil transferasa aktibitatea baxuagoa da haurretan
 - b) CYP 3A zitokromoko entzimen aktibitatea helduena bezalakoa da
 - c) CYP 3A4 aktibitatea baxuagoa da baina CYP 3A7 aktibitatea handiagoa
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira**

4. Gaixo bati batez ere zitokromo P450 bitartez metabolizatzen den farmako bat eta metabolismo eragile bat administratzen badizkiogu:
 - a) Farmakoaren kontzentrazio plasmaticoak handituko dira, efektu eragilea azkar agertuz
 - b) Farmakoaren kontzentrazio plasmaticoak handituko dira, efektu eragilea agertzeko denbora behar delarik
 - c) Farmakoaren kontzentrazio plasmaticoak baxuagoak izango dira, efektu eragilea azkar agertuz dira
 - d) Farmakoaren kontzentrazio plasmaticoak baxuagoak izango dira, efektu eragilea agertzeko denbora behar delarik**